

Guk, **izarkiak** izeneko bost higienista gara, gure pazienteen esperientzia hobetzeko konpromisoa dugu, eta horregatik eguneroko jardunean benetako aldaketa ekarriko duen **proiektu digital** berritzaile bati ekitea erabaki dugu.

Gure helburua pazienteentzako aplikazio integratu bat sortzea da klinika dental guztientzat,

beren **erradiografiak**, **tratamenduen**

informazioa eta hurrengo **hitzorduak** modu errazean

kontsultatzeko; gainera, **argazkiak** igotzeko aukera

izango dute, **patologiak** identifikatzeko edo **zalantzak**

argitzeko lehen balorazio azkarra egin dadin. Horrela, komunikazioa azkartzen da eta pazienteak bere osasunaren kudeaketan protagonista bihurtzen da.

Behin hau guztia azaldu ondoren, aplikazioaren funtzionamendua azaltzera bideratuko gara. Aplikazioa bai **pazienteek** bai hortz-klinikan lan egiten duten **langileek** erabiliko dute; ez dute soilik harrerako langileek edo odontologoek izango, baizik eta langile guztiek, bakoitzak bere **pasahitzarekin**. Aplikazioa erabiltzeko oso erraza izango da, goiko aldean **atal** batzuk izango baititu, erraz aurkitzeko modukoak.

Aplikazio honen bidez **hitzordu** bat eskatu edo

bertan behera utzi ahal izango da, klinikaren deia

itxaron beharrik gabe. Hitzordu bakoitzaren ondoren,

profesionalek emandako **azalpenak** irakurri ahal


izango dira; izan ere, askotan urduritasunagatik esaten

digutena behar bezala ulertzea edo gogoratzea

zaila da. Era berean, **erradiografiak** eta

argazkiak ikusi ahal izango dira, batez ere

ortodontzia-tratamenduren bat egin behar bada.



Gainera, adibidez; etxean zaudela ahoan egon behar

ez lukeen zerbait ikusten baduzu, argazki bat atera eta aplikaziora igo ahal izango duzu, profesionalak ikusi eta ahalik eta azkarren erantzun diezazun. Adibidez, hortz baten haustura, infekzio bat edo orban bat izan daiteke.

Aplikazio hau garatzeko oinarrian **balorezko proposamena** dago. Gure pazienteek bertan aurkitu behar dute haien arazorako konponbidea, **informazioa erraz** eskuratzeko modua eta **arreta pertsonalizatua**. Hala ere, balorea bi ikuspegitatik ulertu dezakegu: alde batetik, **balore kuantitatiboa, neurgarria eta objektiboa**; eta bestetik, **balore kualitatiboa, esperientzia pertsonala eta pazientearen pertzepzioa** gidalatzen duena.

Balore **kuantitatiboari** dagokionez, aplikazioak **denbora eta kostu** operatiboak nabarmen murrizten ditu. Pazienteak ez du klinikara deitu edo bertaratu behar tratamenduari buruzko informazioa eskatzeko, hitzorduak zuzenean aplikaziotik kudeatu daitezke eta dokumentu klinikoak berehala kontsultatu daitezke. Argazkiak igotzeko funtzioak lehen balorazio bat aurrez egiteko aukera ematen du, eta horrek kontsulta fisikoen kopurua egokitzen du. Horren ondorioz, neurgarriak diren hobekuntzak lor daitezke, hala nola **telefono-deien kopuru jaitsiera, itxaronaldien murrizketa edo hitzordu ez-gertatuen beherakada**.

Balore **kualitatiboan**, aplikazioak pazientearen esperientzia du ardatz. Informazio klinikoaren gardentasuna eta eskuragarritasuna bermatzen ditu, eta pazienteak beti dauka eskuetan behar duen informazioa. **Konfiantza handitzen** da, dokumentuak ez direlako galtzen eta komunikazioa arinagoa delako. Zalantzak, beldurrak eta eguneroko deserosotasunak gutxitzen dira, eta pazienteak bere tratamenduan parte aktiboago bihurtzen da, **autonomia eta kontrol pertsonala handituz**. Balio hauek neurtzea zaila bada ere, pazientearen **lasaitasunean** eta klinikaren irudi profesionalean duten inpaktua oso handia da.

Balore kualitatiboaren barruan badira aipatzeko

moduko eguneroko egoerak, aplikazioak erraztasun

handiz konpontzen dituenak. Lehenik eta behin,


paziente askorentzat oso **erosoa** da informazio guztia

leku bakarrean edukitzea; ez dituzte paperezko txostenak

gordetzen ibili behar, eta ez dira mezu galduen edo

datuen nahasmenaren menpe geratzen. Gainera,

paziente batek beste klinika batera joan behar badu,



aplikazioari esker jakin dezake zein **tratamendu** egin zaion aurretik, eta horrek **jarraipena** askoz **arinagoa** eta **segurua** bihurtzen du. Edonork sor ditzake zalantzak etxean, ahoan agertzen zaion zerbaitek beldurra edo ziurgabetasuna sortzen badio; aplikazioaren bidez argazki bat igo eta lehen orientazioa jasotzeko aukera izateak **lasaitasun** handia ematen du. Askotan gertatzen da pazienteak klinikara urduri etortzea eta kontsultan esandakoaren zati handi bat ahaztea. Aplikazioarekin, esandakoa eta egindakoa beti ikusgai geratzen dira, eta pazienteak nahi duen unean **kontsultatu** dezake informazioa. Hori guztia bere ongizatean eta tratamenduaren jarraipen egokian zuzenean islatzen da.

Aplikazioaren balio osagarria erostasunaren,


azkartasunaren eta **eraginkortasunaren** ikuspegitik ere handia da. Pazienteentzat **doakoa** izanik, deskarga eta sarbidea errazak dira eta ez da inolako mugarik 24/7 plataformara konektatzeko. Dokumentuak segituan irekitzen dira eta hitzorduak antolatzea momentuko keinu soil bat bihurtzen da. Profesionalentzat lan administratiboa murriztu eta lan-fluxuak argitu egiten dira, eta erroreak izateko arriskua gutxitzen da, dena plataforma bakarrean integratuta dagoelako.

Segurtasunaren ikuspegitik ere aplikazioa sendoa da: datuak enkriptatuta daude, bi faktoreko autentifikazioa erabiltzen da eta dokumentu digitalak ez dira galtzen.

Horrela, pazienteak bere informazioa babestuta dagoela senti dezake.

Aplikazioak sortzen duen estatusak ere badu bere garrantzia, pazienteak klinika modernoa, berritzailea eta teknologiaz hornitua dela hautematen duelako. “Nire informazioa nire mugikorrean daukat” ideia **autonomia**, dotorezia digitala eta konfiantza pertsonala ematen dituen esperientzia bihurtzen da. Horrek markaren irudia sendotu eta pazientearen leialtasuna handitu egiten du.

Bestalde, aplikazioaren nobedade teknologikoak eta prestazio praktikoak balioa gehitzen diote proiektuari. **Teleodontologiaren** aukera, hau da, **patologiak** aurrez



baloratzea argazkien bidez, oraindik gutxitan ikusten da klinika tradizionaletan. **Pertsonalizazioa funtsezkoa** da: paziente bakoitzak bere profila, tratamenduen jarraipena eta oharrak izango ditu. Diseinu intuitiboak eta menu argiak erabilerraztasuna bermatzen dute, eta horrek adopzio naturala errazten du. Prezioari dagokionez, pazientearentzat kosturik ez egotea abantaila nabarmena da, eta klinikarentzat inbertsioak administrazio-kostuen jaitiera eta ROI positiboa ekar dezake. Arriskua ere murrizten da, historial kliniko eguneratuak diagnostiko fidagarriagoak ahalbidetzen dituelako eta argazkiak aurrez jasotzeak kontsultak hobeto prestatzeko aukera ematen duelako. Eskuragarritasuna eta erabiltzeko erraztasuna funtsezko indarguneak dira, edozein gailutatik eta une edo ordutegi gorabeherarik gabe erabiltzeko aukera ematen.